

EDERRAREN ATSEGIÑA

Era egokiz esana dau P. Claudel'ek; «Gizona ez da musikeak edo-ta amesak jostarazten izteko egiña. Ez dau musikarik bear, ma-miña, izatasuna baiño. Loitzea besterik ez da, izadian edertasuna baiño ez ikustea, beronegaz batera Jainkoari omen egin ezik. Iduri izunak gortzea esaten yako orri. Izadia loitzea da bere kautan bakarrik begi-ratzea, beste ezegaz artu-emonik ez ba'leu lez; Jainkoaren lekuan jar-tea... Ederrerako baiño geiagorako egiña da gizona: ederraren auzira-ko egiña dozu».

Ederra ta atsegiña

Itz bi oneik —eder ta atsegin— ez ditugu errez aitzen emote-koak. Gizaldiak zear konta ezin-ala eritxi azaldu dira ederraren inguru; gizonak ikusiz, entzunez naiz irakurriz artu oi dauan atsegiñaz, ostera, lumarik naiko erkindu da.

Zer da atsegiña? Nok ez daki zer dan, naiz-ta beronen guna adie-razten jakin ez? Gauza eder edo on bat —ederra ta ona geienik al-karrekin bai dabiltz— daukagu begi aurrean; orrek emon oi dauskun biotz-eragiña, leun gozoa ba'da, nor ez dago atsegiñetan? Gauzaki ori, erti-lan ori, atsegin da ala ez? Naimenaren jabe naz ta onek berez bi-llatu daroa eder yakona, atsegin yakona.

Era askotara begiratu neikeo gauza bati. Guk barneko zentzunak, indarrak, adimenarenak eta naimenarenak, baita kanpotikoak be, era-billi oi doguz, onaren edc txarraren, ederraren edo motzaren eritxia

eratu ta emoteko. Ortik, ba, onek ontzat daukana ba'leiteke besteak ez eukitea: ao-zuria —gustoa— sartzen da berton, sarri samar. Baiña ba-dira gauza batzuk, zelanbait esan «guztizkoak», mundu guztiak eder ikusten dabezanak, eta oïduan esan oi dogu gaia edo gaikiaren dozi bat dala ori, ots, danoi eder yakuna ta danoi atsegin yakuna.

Bitarikoa da atsegiña: gozarena ta poza. Gauza bat da gozatsa egotea ta beste bat pozik egotea. Asmoz biak elburu berdiña izanik be, ba-da bien artean bereiztasunik. Atsegiña berez yatorikuna da geienik, maitasun, atsedena, joku bat, erti-lan bat, jan-edana, ta abar. Poz-sentipenak, ostera, adiskide bat barriro ikusteak, egintza on baten balioak aztertzeak, beste zerbait diñosku. Zer biok, ur-samar dabilzela be, gunean ba-dabe alderik.

Ederra beti da guragarri, edonorentzat. Ederrak berez-berez dauka gure biotza. Ederra ez da adimenak eta naimenak artzen dauana bakarrik; ikusmenak, txastamenak, usainmenak naiz maite-zirrarak jaso daikee ederra. Eta esan dogu: ederraren eta atsegiñaren artean ez dago alde txiki baiño, geiago edo gitxiago, zabalago edo medarrago izan daitekela. Eder yaku joku bat, baita lan bat be.

J. M. Guyau, frantses pentsalariak onela: «Bizi izatea bera be, bizi bete ta sendoan, eder dogu; adimenezko ta moralezko arnas be, roz bizi izatea, edertasuna bere gaillurrera jaso ta bizi izatea, ez ete da? Eta auxe da, ain zuzen, atsegiñik goigoikoena. Atsegingarri da argizko erdi-muiña, ta ederra dozu onen buru-galdor diztiratsua».

Erti-lana

Zelan ikusi bear ete arte-lan bat? Nundik begiratu, guban atsegiña sortu dagian? Ez da errez emoteko erantzuna; bakoak dogu geure izakera ta eziketa, ta ortik dator gure eritxi-emotea. Onek nasai dakus etxe eder bat, edo-ta margozko lauki bat; beste arek biotz-dardar uts irakurriko dau Lauaxeta'ren olerki bat.

Zer bat da ikusle soil izatea ta bestea antzezle lez, bere nortasuna iñorenean aldatuz, izatea. Lenengoa iraterti ta zizel-ederretan aurkitzen da batez be, ta bigarrena olerkian eta antzerkian. Dana dala, ikusleak naiz irakurleak begi bereziakaz ikaskatu ta jaso bear dau erti-lana.

Edozein gauzatan, erti-lanean diñot, beti daukagu gogai bat, gurari bat, egite bat, gai bat; onexek dira erti-lanaren zatiak alkar eioten

ela Bilbo-ko
ci ori jaken

dabezanak. Barne gaiok eta eurok alkar lotzearren darabilguzan itzak, esuerak, joskerak eta itz-urienak dagie gure eder-atsegiña. Idazleak, ba, bere lana osotzerakoan, ardura aundiz zaindu bear ditu zatiok, ots, esaniko gai guztien artu-emonak. Egilleak ez daki zelako arrakasta izango dauan bere lanak, baiña gaiok nola eio alakoa izan oi da geien bertean. Ertiak arnasa daroa, ta teknika, ta oneik dira antze-lanaren azur ta mamin.

Ez ete zara egundo pagadi nasai batetik ibilli? Edo-ta, arri artetik polpoka doan erreka ertzean ez ete zara jarri, bertako giro atsegiñez sorgintzeko asmoz? Zer senditu dozu? Giro orren ederra! Ez ete yatzu zoragarri?

Beste goiz batean be zelairantz artu dozu. Aldatz-gora zoaz gaineko muiñora igon nairik; baiña nekatu egin zara ta apur baten ertzean jarri zara. Lilluragarri dagoz inguruak oro, goi ta bee, urriñerarte bakezko pozaren betetasuna. Luzaroan ederrez asetuta gero, sakelearen daroazun Lizardi'ren «Biotz-negietan» edo Orixe'ren «Barne-muinetan» edegi dozu. Lizardi'ren «Arrats-Gorri» deritxan olerkia irakurten asi zara:

Zerk goibeltzen zaitu, maite, arratsero,
aizea ta txoriak atertuz gero?
Begi zabaletan zerk edatzen dizu
gandu delako ori, erdiz nigar ta izu?

Ezin irakurten jarraitu. Zauzkada gozoz asi yako biotza taupa-taupa: berak maiteari sarri esaniko itzak dira orreik, eta barruan gandu antzeko atsegin gozotasunak zabalazi yako dardar-estalkia iduri Geiago ezin irakurrik, egiazki atsegin yako aapaldi orek arrotu dau-ton poz-atsegin bete-betea. Auxe dau benetan atsegiña; ez da onurakor ezek sortua, garbi ta interes-gabekoa baiño. Olakoetan zorionak asetzen gaitu, urak belakia lez, zorion utsak. Or atsegiñaren zorion ziña. Eta emendik ez ete sortzen irakurleagan be dalako goibeltasun bat? Iristurak ei garabiltz.

Ona ta ederra

Edozein olerki naiz idatzitan, errazoi-bide bat daukagu, ta errazoiketa ori izan daiteke atsegingarri, naiz ona dalako, naiz ederra dalako. Emen dituzu ontasuna ta edertasuna, lan berean. Eta Dante'k

diñosku Erdi-Aroko amaikerako pentsakeran, tasun biok bananduta dagozala; ontasuna poesi buten mamiñean datza, eta ederra izen apainduraren. Bai bata ta bai bestea atsegingarri dira, ontasuna atsegiñik go-rengoena dalarik.

Ona Lizardi'ren aapaldi au:

Gaur, orra agiri, tarteka urdiña...
Sor zait barruan larrera miña;
ta aspaldi ez-ta, mendi-aldi.
Bete ditzadan argiz begiok;
eten zain-giar lotuegiok;
bularra asetuz noan geldi.

Zer zaigu emen atsegiñik? Mendirantz joan nai du olerkariak, egu-raldi bikaña baita. Aspaldi ezta joan, ta gaur nai du bularra aize, gure ta bedar-usaiñez bete. Izadia ederrez blei-blei daukagu beti be. Eder ori jaso nai dauanak landara urten bear. Ezker-eskoi ba-dau zer ikusi. Asko ez dira ortaz konturatzen, beste asko bai. Or koska! Oni zer bait, oso interesgarria, esaten dautsa arkaitz-muturrak; edo arkaitz artean beera doan erre-kasto marmalariak; edo txiro kantariak, naiz odei ba-tek, pago-arkaitz tantaiak, naiz bidezidor ertzeko lili apalak, naiz... Ari, osterera, ez dautsa guzti orrek ezer adierazten. Norena da erria? Atsegiña geurenatzeko, orraitino, naiz kanpoko gauzetan, naiz idatzi-tan geure zer bait bear da.

Lizardi'ren «Sagar-lore» deritxon amabi aapaldiko olerkia atse-gin-atsegiña dozu, mamiñari begira. Baiña olerki orren azalak be, bere jantzi ezin obeto egiñak, joskeraz, itz egokiz, zatien apainduraz, barte ritmu ta azken-amai oso betez, ez ete dautzu ezer esaten?

Olerkarian biderik asko ditu irakurleagan atsegiña sortzeko. Ames-lari dozu olerkaria, irudimen azkarrekoa; naiz izadiko gauzak naiz g-zartekoak, ondo daki, giza-biotzari dagokionez, beronen irrika, len-griña ta besteak goratu ta edertuz, irakurleari poza ta atsegiña emon-teko eran azaltzen.

Erriak eta atsegiña

Erriak be euren gogoia, arnasa dabe. Baita itz egiteko era mo-doa be; or izkuntza ta artea, esate baterako. Euskalerrriak betidanik

izan ditun oitura, siñiskera, mitu, erlejiño ta abar, ez ete dira gure erriaren izkera berezi? Bai, onexek dira edozein errik bere barne-ar-nasa ta izatea azaldu ta adierazteko daukazan bideak. Gure erria txito-beratsa dogu orretan? Erraza, lurraldeak, inguruak, izkuntza, lur-gi-roak, erri-jakintzak, kulturak, gizarteko artu-emonak, gizonaren eta erriaren barru-indarrak ez ete geinkez sartu arlo orren esparruan?

Begira orain gertakari au: erriak artista ba'dira, erri orren altzoan sortuko dira naitaez artistak. Eta nor asko artista ba'dira errian, erria be artista bihurtuko da, dudarik gabe. Istoriak darakusgunez, artistare-na ta erriaren lana ez dabiliz, ba, alkarregandik oso urruti. Ezta Eus-kalerrian be. Lurrez ta itxasoz apaiña, txukuna, zoragarria dogu gure bira osoa, ta euskaldunak gizaldiak gizaldi eun eratarra jaso ta erakutsi izan dau ingurutik artu ederra naiz berak bere trebetasunez sortutakoa.

Autor dagigun, bada: gizarteak sentidu lei, edozein nork legez, ederraren atsegiña, gizarteak eskatu oi dauan bear-izanetik etorri da-torren eder-atsegiña. Gizarteak, izan be, eska daikegu, ta osotu, olako atsegin apartekoa, senditik, lagun-talde batetik, erritik sortutakoa.

Guk be gaur arte beintzat, azkenengo urte-mordoan, modan euki dogu gizarte olerkia, «poesi soziala»; erria, lana, sasi-alogera, familia, erakundeak, politikazko jokabideak, erlijiñoa, burrukak, zapalketak... zer ez!, goretsi izan dabez poeta gizarte-zaleak. Eta txaloak irabazi, ez giza-tan. Baliteke olerkari gerri-motzak izatea, aize-bolada batekoak, baiña erriak goraldu egin ditu. Eder izan yako erriari olakoen lana.

Artea, izan be, ez da egillearena bakar-bakarrrik, egillearena ta gizartearena baiño. Erria geienik ez-jakiña dozu, ta berari neurrira datorkiozan lanak miretsi ta txalo-zarta atsegingarritz eskertzen ditu.

Aita Onaindia